



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



[www.gipuzkoa.net/kirolak](http://www.gipuzkoa.net/kirolak)



2004. KIROLAREN  
BIDEZKO HEZIKETAREN  
URTE EUROPARRA



## V. GAITASUNAK KIROLAREN BIDEZ AURKITU ETA GARATzea V. DESCUBRIR Y DESARROLLAR HABILIDADES HACIENDO DEPORTE

“Gaitasunak Kirolaren bidez Aurkitu eta Garatzea” atalean Eskola Kiroleko Programa barnean eskola umeek dituzten gaitasunen arabera entrenamenduak diseinatu dira ikusiko dugu. Zentzu honetan kontuan izan behar dugu adin baikoitzean ahalmen psikiko eta fisiko desberdinak garatzea komenigarria dela. Atal hau azaltzeko Inge Mitxelena elkarizketatu dugu (Senior eta Jubenil mailako nesken hockey entrenatzailea da bera, IVEF eta Majisteriza ikasketak egin ditu eta Lehen Hezkuntzan ere soinetako irakaslea da).

> Inge Mitxelena  
Hockey entrenatzailea

■ Haurrek ahalmen fisiko jakin batzuk dituzte adin desberdinetan, ahalmen horiek kontutan hartu beharrekoak dira teknifikazio prozesuan. Arrisksua izango litzateke adin horiekin bat ez datozen aspektu fisikoak lantzea?

■ Kirol jakin batzuetan teknifikazio prozesua ahalik eta lehen hastea eskatzen duten pertsonak badira. Kirola jolas bat dela kontutan izanik, are gehiago adin hauetan, zer argudio emango zenieke “aurrerapen” hau eskatzen dutenei?

Noski, oso kaltegarria gerta daiteke haurren osasunerako eta garapenerako bere adinarekin bat ez datozen gaitasun fisikoak lantzea. Are gehiago, haurtzaroan maila altuko lehiaketa kirolak ez du errendimendu mailako muga biologikoak soilik azaltzeko arriskua, berarekin bat daramatza psikologiko nahiz garapen sozialeko arazoak arriskua.

Esango nieke soilik adin desberdinetan haurrek azaltzen dituzten ezaugarri eta beharrak ezagutzeko, eta hauekin lan egitean ezaugarri eta behar horiek edozeren aurretik jartzeko. Kontutan izateko kirola jolasa dela eta etapa honetan kirolak duen funtzioa pertsonaren garapen integralerako funtsezkoa dela.

Maila fisikoari dagozkion arriskuen artean hazkuntza normalaren alterazioa eta lesio ugari agertzea aipatuko nituzke. Kontutan hartu behar da haurra oraindik ere hazten ari dela, bere kartilagoak, gihar zuntzak, oraindik ere hazkuntzakoak direla eta ondorioz karga gehiegia eragindako giharren desoreka artikulazioen inguruan, gihar zuntzen mikrotraumatismoak... eman daitezkeela.

Mugimendua ez da soilik haurren zati bat haurtzaroan, baizik eta haurra bera da: haurra eta mugimendua banaezin dira. Haurren alderdi motorra inguruko edozein axolagabekerik nortasunaren beste alderdietan ondorio iraunkorrek ekar ditzakeela. Mugimendua adin hauetan heziketarako bidea da eta inoiz ez berez helburu bat.

“Haurrekin ari garenean bere garapen integralari begiratu egin behar dugu lan”

■ Eskola Kirolak kirol desberdinak praktikatzeko aukera ematen duenez, ikasten diren abileziak ere desberdinak izango dira eta beraz espezializazioak dakarren traba hori gainditu daiteke ezta?

Bai hala da. Dena den nik beti izan dudana kezka ondorengoa da: nik uste dut ikastetxeetako Gorputz Hezkuntzako kurrikuluma gaur egun eskola kirolean lantzen diren hainbat arlo landu beharko litzukeela. Horretarako noski, Gorputz Hezkuntzak benetan duen garrantzia lortu beharko luke, ordu kopuruaren igoeratik hasita.

Kirol pedagogiak ez ditu soilik ikasketa ekintzen exekuzioak kontrolatu behar, etorkizuneko ondorioak ere kontrolatu behar ditu. Pertsona horiei ere esango nieke kontutan izateko, aurreko galderan aipaturikoak.

Eta azkenik, estatistikak begira ditzatela: zenbat dira teknifikazio aurreratu batean sartu diren kirolarietatik elitera iritsi direnak? Zenbat ez? Azken hauentzat nolakoak izan dira ondorioak? Iritsi direnen artean ere ziur al gaude bere garapen prozesua orekatua izan dela?

Beti ere haurrekin ari garenean bere garapen integralari begiratu lan egin behar dugu.

Pentsatzen dut badirela kirolak, hockeya horien artean, baduten lehentxeago landu beharreko zenbait abilezia. Aurretik aipaturiko aurrera eramango balitz agian posible litzateke haurraren inolako kalterik eragin gabe maila altuagoko jokalariek lortzea Gipuzkoako Hockeyan.

Kirolaren bidez, dudarik gabe, haurrek edonolako gaitasunak lantzen dituzte, bai fisikoak eta baita psikikoak ere, noski. Bi gaitasun hauek, nik behintzat, ezin ditut banatuta ulertu. Garbi dut, eskola kirolaren helburu nagusia kirolaren bidez hezitzea dela. Hau da, eskola kirolean haurrak jorratu eta ezagutzen dituen abileziak dira, hain zuzen ere, gaitasunak garatzeko bidea. Abilezia guztiak aipatzen hasiko banintz ez genuke lekuri izango orrialde honetan, kontutan hartu behar da abileziak bai sozialak, bai motrizak, bai kontzeptualak... izan daitezkeela. Batzuk aipatzekotan ondorengoak: Abilezi motrizari dagokionez: lekualdaketa era desberdinak, koordinazioa (fina eta lodia), oreka, jaurtiketa, golpea ... Abilezi sozialei dagokionez, berriz: onarpen soziala, osasun ohiturak, jarrera sozialak...

■ Zu Hockey entrenatzailea zara eta haurren teknifikazio prozesuan partehartzen duzu, zein nolako abileziak dira kirol honetan lantzen direnak?, beste kirolek eskatzen dituzten abileziekin zerikusirik al du?

Hockeyan, kontutan izanik makila eta pilotarekin jokatzen den talde kirola dela, lantzen diren abilezia motrizak, batetik futboleko, eskubaloian, saskibaloian zein bestelako kirolean lantzen direnak dira korrikaldiari edo leku aldaketei dagokionez. Bestetik, baditu bere abilezia zehatzak: pilota eramateko, jotzeko, jasotzeko, kentzeko modu desberdinak... Eta kontutan hartu behar da, era berean, hockeyak koordinazio maila handia eskatzen duela, aipatutako beste kirolekin alderatuz, makilarekin pilota bat maneiatzeko duen desberdintasuna azpimarratuz.

